

# Premios COAVN EHAEO Sariak 2019

La Junta de Gobierno del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro acordó, en el año 1989, la creación de los PREMIOS COAVN DE ARQUITECTURA para obras de Arquitectura y trabajos de cualquier índole relacionados con la actividad profesional de los Arquitectos y las Arquitectas que se realizasen dentro de su ámbito colegial.

30 años después, por medio del galardón más importante del COAVN, se quiere reconocer, además, la sobresaliente trayectoria profesional de los compañeros y compañeras al servicio de la Administración, así como la obra de Arquitectos y Arquitectas del COAVN fuera del ámbito colegial.

A fin de regular de modo adecuado las condiciones de celebración de la presente convocatoria de estos Premios y en cumplimiento de los pertinentes acuerdos adoptados por la Junta de Gobierno, se establecen las siguientes

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gobernu Batzordeak EHAEO ARKITEKTURA SARIAK sortzea erabaki zuen 1989an, Arkitektoek elkargoaren esparruan egindako arkitekturako obrak eta beren jardun profesionalarekin loturiko orotariko lanak saritzeko xedez.

Sariak sortu zirenetik 30 urte igarota, EHAEOren sari nagusiaren bidez orobat aintzatetsi nahi da Administrazioaren zerbitzura dihardute lankideen ibilbide profesionala, baita EHAEOko Arkitektoek elkargoaren esparrutik kanpo egindako lana ere.

Sarien deialdiaren baldintzak modu egokian arautzeko, eta Gobernu Batzordeak hartutako bidezko erabakiei jarraituz, honako oinarri hauek finkatu dira:

## BASES

### 1 - OBJETIVOS

El fin fundamental de los presentes Premios es el reconocimiento público, por un lado, de las actuaciones concretas más destacadas del ámbito colegial, así como de las actuaciones realizadas por Arquitectos y Arquitectas del COAVN fuera del ámbito colegial y, por otro, de la labor de extraordinarios Arquitectos y Arquitectas al servicio de la Administración. Por lo tanto, los Premios se otorgan a una obra o trabajo concretos realizados durante el período que se establezca y, también, a una trayectoria profesional en una de las modalidades.

Asimismo, se persigue potenciar un estado de opinión o debate arquitectónico en el colectivo profesional y difundir ante la sociedad la labor de los Arquitectos y Arquitectas, comprometidos con el uso óptimo de los recursos y la búsqueda de soluciones innovadoras, reforzando el carácter cultural y social de nuestra disciplina, en su condición de bien de interés general.

A tal fin, se publicará un Catálogo de la Exposición que exhiba los trabajos premiados y los finalistas, y se publicará en la página web colegial la relación de propuestas admitidas, reproduciéndose la documentación enviada al efecto u otra adicional que se solicite para ello.

## OINARRIAK

### 1 - HELBURUAK

Sari hauen helburu nagusia da aitortza publikoa adieraztea, alde batetik, elkargoaren esparruko jarduketa zehatzei nahiz EHAEOko Arkitektoek elkargoaren esparrutik kanpo duten jardunari, eta, bestetik, Administrazioaren zerbitzura dihardute Arkitektoen lanari. Hori dela eta, ezarritako aldian egindako obra edo lan jakinak sarituko dira, baita ibilbide profesionala ere, modalitate bakoitzean.

Bestalde, talde profesionalaren baitan arkitekturari buruzko iritzia eta eztabaida sustatu nahi dira, eta gizarteari erakutsi nahi zaio Arkitektoaren lana zertan den, baliabideen erabilera optimoaren eta irtenbide berritzaileen konpromisoaren ikuspegitik, gure diziplinaren alderdi kultural eta soziala nabarmentzeko, interes orokorreko ondaretzat harturik.

Helburu hori betetzeari begira, Erakusketaren Katalogo bat argitaratuko da, saritutako lanekin eta finalista gelditutakoekin; era berean, onartutako proposamenen zerrenda elkargoaren webgunean argitara emango da, xede horretarako igorritako dokumentazioa edo horretarako eskatutako dokumentazio gehigarriaren erreprodukzioa atxikita duela.

**2 - PERIODICIDAD**

La convocatoria y consiguiente concesión de estos Premios se celebrará con una periodicidad trienal.

**3 - DESTINATARIOS DE LOS PREMIOS**

Los Premios se conceden al Arquitecto, Arquitecta o equipo autor de una determinada obra, si bien, de hecho, suponen, además, el reconocimiento a los restantes agentes intervinientes en la materialización de la misma (Propietario, Constructor, etc.). Por otro lado, se reconoce también al Arquitecto o Arquitecta destacada al servicio de la Administración.

**4 - MODALIDADES DE TRABAJO CON OPCIÓN A PREMIO**

Dada la variedad del quehacer profesional de los Arquitectos y Arquitectas, podrá acceder a la consecución del galardón una actuación o propuesta en cualquiera de las 8 modalidades siguientes:

A. ARQUITECTURA (nueva planta): vivienda unifamiliar o colectiva, edificación dotacional e industrial. Se concederán hasta un máximo de tres Premios.

B. REHABILITACIÓN y RESTAURACIÓN. Se concederá un Premio.

C. ARQUITECTURA INTERIOR y ACTUACIONES EFÍMERAS. Se concederá un Premio.

D. URBANISMO. Se podrán conceder como máximo dos Premios: Planeamiento Urbanístico y Actuación Urbana.

E. ARQUITECTURA y URBANISMO EXTRATERRITORIAL. Se podrán conceder como máximo dos Premios: ARQUITECTURA y URBANISMO Nacional y ARQUITECTURA y URBANISMO Internacional.

F. CULTURA, DIFUSIÓN e INNOVACIÓN ARQUITECTÓNICA. Se concederá un Premio.

G. ARQUITECTURA y URBANISMO PERDURABLE. Modalidad extraordinaria para las obras y trabajos de más de 25 años.

H Reconocimiento al Arquitecto o Arquitecta al servicio de la Administración Pública.

**5 - CONDICIONES DE INSCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS**

Las condiciones para optar a los Premios en cada modalidad son las siguientes:

- En las modalidades A, B, C, D y G (ARQUITECTURA, REHABILITACIÓN y RESTAURACIÓN, ARQUITECTURA INTERIOR y ACTUACIONES EFÍMERAS, URBANISMO y ARQUITECTURA y URBANISMO PERDURABLE) podrán inscribirse para optar a estos Premios los Arquitectos, Arquitectas o equipos autores de cualquier trabajo realizado en el ámbito de los cuatro territorios de la demarcación del COAVN.
- En la modalidad E (ARQUITECTURA y URBANISMO EXTRATERRITORIAL) podrán inscribirse para optar a estos Premios los Arquitectos, Arquitectas o equipos autores colegiados en el COAVN autores de obras y trabajos realizados en el ámbito nacional e

**2 - ALDIZKAKOTASUNA**

Hiru urtean behin egingo da Sarietarako deialdia, eta hiru urtean behin banatuko dira, beraz, sariak.

**3 - SARIEN HARTZAILEAK**

Obra jakin bat egin duen Arkitektoari edo taldeari ematen zaio saria; baina, izatez, orobat da obra hori gauzatzen esku hartu duten eragile guztiei (Jabea, Eraikitzailea, etab.) egindako aitortza. Bestalde, Administrazioaren zerbitzura nabarmendutako Arkitektoa ere aintzatetsiko da.

**4 - SARIA JASO DEZAKETEN LAN MODALITATEAK**

Arkitektoen esparru profesionala zabala eta askotarikoa izanik, honako 8 modalitate hauetara aurkez daitezke jarduketak edo proposamenak:

A. ARKITEKTURA (oin berrikoa): familia bakarreko etxebizitza edo etxebizitza kolektiboa, zuzkidura eta industria eraikuntza. Hiru sari emango dira, gehienez.

B. BIRGAITZEA ETA ZAHARBERRITZEA. Sari bat emango da.

C. BARNE ARKITEKTURA eta JARDUKETA IRAGANKORRAK. Sari bat emango da.

D. HIRIGINTZA. Bi sari emango dira, gehienez: Hiri Antolamendukoa eta Hirigintza Jarduketakoa.

E. LURRALDEAZ HARAGOKO ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA. Bi sari emango dira, gehienez: ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA Nazionala eta Nazioarteko ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA.

F. KULTURA, HEDAPEN eta BERRIKUNTZA ARKITEKTONIKOA. Sari bat emango da.

G. ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA IRAUNKORRA. 25 urtetik gorako obra eta lanak saritzeko ezohiko modalitatea.

H. Administrazio publikoaren zerbitzuko Arkitektoari Aintzatespena

**5 - LANAK INSKRIBATZEKO BALDINTZAK**

Hauek dira sarietarako hautagai izateko bete beharreko baldintzak, modalitateen arabera:

- A, B, C, D eta G modalitateetan (ARKITEKTURA, BIRGAITZEA eta ZAHARBERRITZEA, BARNE ARKITEKTURA eta JARDUKETA IRAGANKORRAK, HIRIGINTZA eta ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA IRAUNKORRA) EHAEOren jarduera esparruko lau lurraldeetan edozein lan egin duten Arkitektoek edo taldeek izena eman ahal izango dute.
- E modalitatean (LURRALDEAZ HARAGOKO ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA), Euskal Herriaz kanpoko nazioko eta nazioarteko esparruko lanen egile diren EHAEOko Arkitekto edo talde elkargokideek izena eman ahal izango dute.
- F modalitatean (KULTURA, HEDAPEN eta BERRIKUNTZA ARKITEKTONIKOA) arkitekturarekin

internacional, exceptuando el entorno vasco-navarro.

- Al Premio de la modalidad F (CULTURA, DIFUSIÓN e INNOVACIÓN ARQUITECTÓNICA) podrán optar trabajos de Arquitectos o Arquitectas colegiados en el COAVN relacionados con la Arquitectura y el Urbanismo, así como también Arquitectos o Arquitectas colegiadas en otros Colegios con trabajos que estén relacionados con la Arquitectura y el Urbanismo del ámbito vasco-navarro. Podrán optar al Premio, en esta Modalidad, los trabajos editados antes de la fecha fin de presentación que no hubiesen sido presentados en ediciones anteriores.

Se podrán presentar los trabajos que hayan sido terminados antes de la fecha límite de presentación de candidaturas de la convocatoria en curso (las 14:00 del 28.11.2018), acreditándose esta circunstancia por el inexcusable visado del Certificado Final de Obra, en el caso de visado obligatorio/voluntario, el Acta de Recepción por parte del promotor o mediante una declaración jurada, siempre que no hayan sido presentados a convocatorias anteriores.

En el caso de figuras de Planeamiento, será necesario que las mismas hayan sido aprobadas, cuando menos, inicialmente. Para el resto de trabajos de Planeamiento presentar la redacción final del mismo.

**6 - CONDICIONES DE PRESENTACIÓN DE LAS CANDIDATURAS**

1. Dentro de cada una de las Modalidades de trabajo que se contemplan en el apartado 4º de estas Bases, excepto en la H, podrán presentarse todos aquellos trabajos que se consideren oportunos para concurrir a los Premios.
2. Las obras o trabajos concursantes podrán ser presentados por:
   - Los Profesionales Colegiados en el COAVN, pudiendo las obras propuestas ser propias o no
   - Las Escuelas de Arquitectura y las Organizaciones Sociales y Culturales con sede en el ámbito territorial vasco-navarro.
   - Los distintos Órganos de la Administración Pública Estatal, Autonómica, Foral o Local.
3. Será condición indispensable que los Arquitectos y Arquitectas firmantes de las obras presentadas se encuentren al corriente del pago de sus obligaciones colegiales. En el caso de que la propuesta sea realizada por persona distinta del autor o autora del proyecto, deberá contar con la conformidad expresa para ello.
4. Las propuestas se enviarán vía electrónica a decanatoconcursos@coavn.org, dentro del plazo establecido al efecto en la convocatoria (que en ningún caso será inferior a un mes).
5. En la modalidad H, las propuestas de candidatos y candidatas serán presentadas por las Juntas Directivas de las Delegaciones, por las Agrupaciones colegiales o por la Junta de Gobierno del COAVN, que será quien decida la concesión del Reconocimiento.

eta hirigintzarekin lotura duten EHAEOko Arkitekto edo talde elkargokideek izena eman ahal izango dute, baita beste elkargo batzuetako elkargokide diren Arkitektoek ere, baldin eta Euskal Herriko arkitektura eta hirigintzarekin lotura duten lanak egin badituzte. Modalitate honetan, sariketara aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako lanak izan daitezke saria jasotzeko hautagai, aurreko edizioetan aurkeztu ez badira.

Indarrean den deialdirako lanak aurkezteko epearen barruan (2018-11-28ko 14:00ak) bukatutako lanak aurkez daitezke, eta halaxe egiaztatu beharko da amaituta daudela, ezinbestean, Obra Amaieraren Egiaztagiri onetsiaren bidez, derrigorrezko/borondatezko ikus-onespena behar den kasuetan, sustatzailearen Onarpen Aktaren bidez edo zinpeko aitorpen baten bidez, aurreko deialdietara aurkeztu ez badira.

Antolamenduko irudiei dagokienez, jasota eduki beharko dute hasierako onarpena, gutxienez. Antolamenduko gainerako lanei dagokienez, Antolamenduaren behin betiko idazketa aurkeztu behar da.

**6 - HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO BALDINTZAK**

1. Oinarri hauetako 4. atalean adierazitako lan modalitate bakoitzean, H modalitatean izan ezik, egoki iritzitako adina lan aurkeztu ahal izango dira sariketara.
2. Honako hauek aurkez ditzakete sariketarako obrak edo lanak:
   - EHAEOko profesional elkargokideek (beren nahiz besteren obrak).
   - Euskadi eta Nafarroako lurralde esparruan egoitza duten Arkitektura Eskolek eta Gizarte eta Kultura Erakundeek.
   - Estatu, Erkidego, Foru edo Toki Administrazio Publikoetako Organoek.
3. Ezinbestean bete beharreko baldintza izango da aurkeztutako obrak sinatu dituzten Arkitektoek egunean edukitzea elkargokide izateagatik dagozkien obligazioen ordainketa. Proposamena proiektuaren egileaz beste norbaitek eginez gero, horretarako berariazko baimena beharko du.
4. Proposamenak posta elektronikoz igorriko dira decanatoconcursos@coavn.org helbidera, dagokion deialdian xede horretarako ezarritako epearen barruan (sekula ez hilabetetik beherako epea).
5. H modalitatean, Ordezkaritzetako Zuzendaritza Batzordeek, Elkargoko Elkarteek edo EHAEOko Gobernu Batzordeak proposatu behar dituzte hautagaiak, eta EHAEOko Gobernu Batzordeak erabakiko du Aintzatespena nori eman.

**7 - ADMISIÓN DE LAS PROPUESTAS**

Cumplida la fecha límite de presentación de propuestas, se abrirá un plazo no menor de 15 días para completar la información que pudiera faltar en la documentación presentada por las candidaturas recibidas, transcurrido el cual el Secretario del COAVN levantará Acta con la relación de propuestas admitidas y de las excluidas por no atenerse a las bases de la convocatoria. Seguidamente la Junta de Gobierno procederá a la aprobación de dicha Acta.

Tanto del Acta de Recepción de propuestas como de la constitución definitiva del Jurado se dará conocimiento a través de circular colegial, dentro de los plazos establecidos en la convocatoria.

**8 - PROCESO DE SELECCIÓN**

El Jurado, una vez constituido, analizará la documentación presentada, efectuando una selección de aquellas propuestas que considere acreedoras al otorgamiento de los Premios o Accésits que pudiera conceder en cada una de las modalidades, excepto a la modalidad H, cuya selección y otorgamiento del Reconocimiento corresponde a la Junta de Gobierno.

Asimismo, el Jurado solicitará de los autores la ampliación de la documentación que estime pertinente para la adecuada comprensión de la propuesta. Solamente en los supuestos de las obras construidas en el ámbito de los cuatro territorios de la demarcación del COAVN, se notificará al autor y al propietario, de la visita de inspección que pudiese girar a la misma, de considerarlo necesario.

Una vez efectuadas las visitas de obra señaladas anteriormente, se procederá al fallo definitivo de los Premios, previa selección de los trabajos finalistas. Los Premios podrán quedar desiertos, en cualquiera de sus modalidades, si en opinión mayoritaria del Jurado las propuestas presentadas no tienen la calidad suficiente que las haga merecedoras de los mismos.

Igualmente, se faculta al Jurado para la concesión "ex-aequo" del Premio en cualquiera de sus modalidades y los accésits que considere oportuno otorgar en cada una de ellas.

**9 - COMPOSICIÓN DEL JURADO**

El Jurado estará compuesto por:

PRESIDENTA

- Matxalen Acasuso Atutxa, Decana del COAVN.

VOCALES

- Ekain Jiménez Valencia, Representante de la Delegación en Álava.
- Marta González Cavia, Representante de la Delegación en Bizkaia.
- Judith Ubarrechena Iribarren, Representante de la Delegación en Gipuzkoa.
- Miguel Ángel Díaz Iturriaga, Representante de la Delegación en Navarra.
- Javier Caballero Senosiain, Vocal Corporativo de la Junta de Gobierno del COAVN.
- Javier Martínez Callejo, Presidente de la Agrupación Vasco-Navarra de Arquitectos Urbanistas (AVNAU).

**7 - PROPOSAMENAK ONARTZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, beste epe bat irekiko da –ez 15 egunetik beherakoa–, jasotako hautagaitzetarako aurkeztutako informazioren bat falta bada informazio hori osatzeko; epe hori amaitutakoan, EHAEOko idazkariak akta batean adieraziko du onartutako eta deialdiaren oinarriak ez betetzeagatik baztertutako hautagaitzen zerrenda. Ondoren, Gobernu Batzordeak akta horri onespena eman beharko dio.

Jasotako proposamenen akta nahiz Epaimahaiaren behin betiko osaerarena elkargoko zirkular baten bidez emango dira ezagutzera, deialdian ezarritako epeen barruan.

**8 - HAUTAKETA PROZESUA**

Epaimahaia osatutakoan, aurkeztutako dokumentazioa aztertuko dute Epaimahaikideek, eta modalitate bakoitzean eman litezkeen Sariak edo Accesitak jasotzeko merezidun izan daitezkeela iritzitako proposamenak aukeratuko ditu, H modalitateari dagozkienak izan ezik: modalitate horri dagozkion proposamenak hautatzea eta Aintzatespena ematea Gobernu Batzordearen ardura izango da.

Era berean, proposamena behar bezala ulertzeko beharrezko iritzitako dokumentazioa osatzea eskatuko die Epaimahaiak egileei. EHAEOren lurralde esparrua osatzen duten lau herrialdeetako obrei dagokienez, obrara ikuskapen bisita egiteko jakinarazpena egingo zaie egileari eta jabeari, beharrezkoa irizten bazaio.

Aurreko atalean aipatutako obrako bisitak egindakoan, sarien behin betiko ebazpena emango da, finalistak hautatu ondoren. Sariak eman gabe gera daitezke, edozein modalitatetan, baldin eta Epaimahaikideen gehiengoak irizten badio sariketara aurkeztutako proposamenek ez dutela sarien merezidun izateko behar adinako kalitaterik.

Era berean, Epaimahaiak eskumena du saria "ex-aequo" emateko, edozein modalitatetan, baita modalitate bakoitzean egoki iritzitako adina accesitak egiteko ere.

**9 - EPAIMAHAIAREN OSAERA**

Honela osatuta egongo da Epaimahaia:

EPAIMAHAIBURUA

- Matxalen Acasuso Atutxa, EHAEOko Dekanoa.

EPAIMAHAIKIDEAK

- Ekain Jiménez Valencia Arabako Ordezkaritzaren Ordezkaria.
- Marta González Cavia Bizkaiko Ordezkaritzaren Ordezkaria.
- Judith Ubarrechena Iribarren Gipuzkoako Ordezkaritzaren Ordezkaria.
- Miguel Ángel Díaz Iturriaga Nafarroako Ordezkaritzaren Ordezkaria.
- Javier Caballero Senosiain EHAEOren Gobernu Batzordeko kide korporatiboa.
- Javier Martínez Callejo Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkartearen (EHAHE) Presidentea.

- Guadalupe Piñera Manso, Arquitecta del estudio Irisarri + Piñera.
- Blanca Lleó Fernández, Arquitecta.

SECRETARIO

- Alberto de Abiega Quintano, Secretario de la Junta de Gobierno del COAVN.

En caso de que, por circunstancia sobrevenida, algún miembro del Jurado no pudiera participar podrá ser sustituido por designación de la Junta de Gobierno.

Para las deliberaciones del Jurado, será necesaria la presencia de la mayoría absoluta de sus miembros, contando siempre con la asistencia de la Presidenta y del Secretario.

El voto de la Presidenta será de calidad y el Secretario dispondrá de voz, pero no de voto.

**10 - INCOMPATIBILIDADES**

Se consideran incompatibles para acceder a los Premios los miembros del Jurado, así como sus socios profesionales o colaboradores habituales y quienes estén en relación de consanguinidad dentro del 4º grado o de afinidad dentro del 2º con cualquiera ellos. Los miembros de Junta de Gobierno que quieran presentar una propuesta deberán abstenerse en la elección de los miembros del Jurado.

Los miembros del Jurado no podrán ser proponentes de las propuestas presentadas.

El Jurado y la Junta de Gobierno dirimirán las cuestiones relacionadas con el cumplimiento de este apartado.

**11 - NATURALEZA DE LOS PREMIOS**

El Premio consiste en un objeto artístico a entregar al ganador y, para las obras construidas en el ámbito de los cuatro territorios de la demarcación del COAVN, una placa para su colocación en la obra galardonada, según el diseño premiado en el concurso convocado al efecto por el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro.

Los autores de las obras que hubiesen sido merecedoras de un Premio, Reconocimiento o Accésit, recibirán un Diploma acreditativo de este hecho.

**12 - ENTREGA DE PREMIOS**

El Acto de entrega de los Premios se celebrará entre los meses de mayo y junio del 2019.

**13 - CALENDARIO**

| | |
|---|---|
| **02/10/2018** | Convocatoria y designación del Jurado mediante acuerdo de Junta de Gobierno |
| **28/11/2018** | Fecha límite de presentación de candidaturas enviadas vía electrónica (antes de las 14 horas). |
| **21/12/2018** | Publicación en Circular Colegial de la relación de concursantes admitidos y excluidos. |
| **03/04/2019** | Fecha límite para el fallo del Jurado y su publicación en Circular Colegial. |
| **Mayo Junio 2019** | Entrega de Premios. |

- Guadalupe Piñera Manso, Irisarri + Piñera estudioko Arkitektoa
- Blanca Lleó Fernández, Arkitektoa.

IDAZKARIA

- Alberto de Abiega Quintano, EHAEOren Gobernu Batzordeko Idazkaria.

Ezusteko gorabeherak direla-eta Epaimahaiko kideren batek hartan parte hartzerik ez balu, Gobernu Batzordeak haren ordezko Epaimahaikidea izendatuko du.

Epaimahaiaren deliberazioetarako, beharrezkoa izango da Epaimahaikideen gehiengo absolutua elkartzea, Epaimahaiburua eta idazkaria bertan direla, betiere.

Epaimahaiburuak kalitateko botoa izango du, eta idazkariak hitz egiteko eskubidea izango du, baina ez botoa ematekoa.

**10 - BATERAEZINTASUNAK**

Sarietan parte hartzeko bateraezintasuna izango dute Epaimahaiko kideek, baita haien bazkide profesionalek edo ohiko lankideek ere, eta haietako edozeinekin 4. mailarainoko odolkidetasunezko erlazioa edo 2. mailarainoko ezkontza ahaidetasuna dutenek. Proposamenen bat aurkeztu nahi duten Gobernu Batzordeko kideek abstenitu egin beharko dute Epaimahaiko kideen hautaketan.

Epaimahaiko kideek ezin dute aurkeztu proposamenik.

Epaimahaiak eta Gobernu Batzordeak ebatziko dituzte atal honetan esandakoa betetzeari buruzko auziak.

**11 - SARIEN IZAERA**

Sari gisa objektu artistiko bat jasoko du irabazleak, eta plaka bat EHAEOren esparruko lau herrialdeetan eraikitako obrek, saritutako obran ezartzeko, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak xede horretarako antolatutako lehiaketan saritutako diseinuarekin.

Saria, accesita edo aintzatespena jasotzen duten obren egileek aitortza horren diploma jasoko dute.

**12 - SARI BANAKETA**

Sariak banatzeko ekitaldia deialdia 2019ko maiatza eta ekaina bitartean egingo da.

**13 - EGUTEGIA**

| | |
|---|---|
| **2018/10/02** | Deialdia eta Epaimahaiaren izendapena Gobernu Batzordearen erabakiaren bitartez |
| **2018/11/28** | Bide elektronikoaren bitartez hautagaitzak aurkezteko data muga (14:00ak baino lehenago) |
| **2018/12/21** | Onartutako eta ez onartutako zerrenda elkargoko zirkularrean argitaratzeko |
| **2019/04/03** | Epaimahiaren erabakirako eta elkargoko zirkularrean argitaratzeko epe muga |
| **2019 Maiatza Ekaina** | Sari Banaketa |

**14 - DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR**

Las propuestas que opten a la consecución de los Premios deberán ser enviadas vía electrónica a decanatoconcursos@coavn.org, y contendrá:

Para las modalidades A, B, C, D, E, F y G:

- Formulario, con los datos de contacto, que se encontrará disponible en la web del COAVN.
- 1 panel DIN A1 en formato PDF de la propuesta, en composición vertical, debiendo figurar necesariamente la inscripción de PREMIOS COAVN 2019, modalidad en que se concursa, título de la obra o trabajo y cuanta información se considere imprescindible para una adecuada compresión de la propuesta, con una resolución mínima de 300 ppp.

  Para las modalidades A, B, C, E y G: planos de plantas, secciones y fotografías, Certificado Final de Obra visado, en el caso de visado obligatorio/voluntario, Acta de Recepción de la Obra por parte del promotor o declaración jurada.

  Para las modalidades D, F y los apartados de Urbanismo correspondientes a las modalidades E y G, el contenido del panel DIN A1 será libre. En el caso de planeamiento urbano, incluirá links a los documentos oficiales (si procede).
- En caso de que la presentación a los Premios sea realizada por persona y/o institución distinta del autor o autora del proyecto, se deberá adjuntar la autorización expresa firmada por ambos.
- En todo caso, se adjuntará justificante del ingreso de la cuota de inscripción, a nombre del Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro, en la cuenta ES35 3183 4800 53 0000267645, por importe de 75€ + IVA (90,75€) para la primera propuesta presentada y de 50€ + IVA (60,50€) para la segunda y siguientes.

La organización podrá solicitar la documentación complementaria que considere apropiada para las publicaciones a realizar.

**15 - ACEPTACIÓN DE LAS BASES**

La presentación a los Premios supone la plena aceptación por los concursantes de las bases del mismo, así como su conformidad con la utilización, por parte del COAVN, de todo el material gráfico, textos, fotografías o planos de la documentación de las obras presentadas, al objeto de realizar las Publicaciones y Exposiciones que la Junta de Gobierno acuerde.

La Junta de Gobierno se reserva el derecho de la edición de las memorias de los trabajos presentados con el fin de integrarlas en las Publicaciones que considere, con el visto bueno de su autor.

Cualquier duda en la interpretación de las presentes bases será resuelta por el Jurado, siendo su fallo inapelable.

**14 - AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA**

Sariketarako hautagaitza proposamenak posta elektronikoz igorri behar dira decanatoconcursos@coavn.org helbidera, eta honako hauek bildu behar dituzte:

A, B, C, D, E, F eta G modalitateetarako:

- Harremanetarako datuen inprimakia (EHAEOren webgunean egongo da eskuragarri).
- Proposamenaren DIN A1 panela, PDF formatuan, bertikalean, non adierazi behar baita, nahitaez, 2019KO EHAEO ARKITEKTURA SARIEN zer modalitatetan parte hartuko duen, obraren edo lanaren izenburua, eta proposamena ulertzeko ezinbesteko iritzitako behar adina informazio, 300 ppp-ko bereizmenaz, gutxienez.

  A, B, C, E eta G modalitateetarako: oin eta epaien planoak eta argazkiak, Obra Amaieraren Egiaztagiri onetsia, derrigorrezko/borondatezko ikus-onespena behar den kasuetan, sustatzailearen Onarpen Akta edo zinpeko aitorpena.

  D eta F modalitateetarako eta E eta G modalitateetako hirigintza ataletarako, ez dago zehaztuta DIN A1 panelak zer eduki izan behar duen; librea izango da. Hiri antolamenduari badagokio, dokumentu ofizialetarako estekak txertatu behar dira (hala badagokio).
- Sariketara proposamena aurkezten duena proiektuaren egileaz bestelako pertsona edo/eta erakunde bat bada, biek sinatutako berariazko baimena atxiki beharko da.
- Edonola ere, sariketan inskribatzeko kuotaren ordainketaren egiaztagiria atxikiko da. Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren ES35 3183 4800 53 0000267645 kontuan egin beharko da sarrera: 75 € + BEZ (90,75 €), aurkeztutako lehen proposamenagatik, eta 50 € + BEZ (60,50 €) bigarrenagatik eta hurrengoengatik.

Argitalpenetarako egoki iritzitako dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du antolatzaileak.

**15 - OINARRIAK ONARTZEA**

Sariketara aurkezteak aditzera ematen du hautagaiak haren oinarriak onartzen dituela eta baimena ematen diola EHAEOri, sariketako obren dokumentazioa osatzen duten material grafiko, testu, argazki eta planoak erabiltzeko, Gobernu Batzordeak erabakitako argitalpen eta erakusketetan.

Gobernu Batzordeak beretzat gordetzen du egoki iritzitako argitalpenetan argitara emateko sariketara aurkeztutako lanen memoriak, egileak oniritzia emanez gero.

Oinarri hauek interpretatzean inolako zalantzarik sortuz gero, Epaimahaiak emango du horren gaineko ebazpena, eta apelaezina izango da haren epaia.

**inscripción - izen ematea**